

“Elurra”

Elurra... Mila planeta hegaz eginez
galaxiaz josita airea
zerua gure barnean
urdina berotzen
eta denok biluzik

Mundu erdian
filosofia
eta erlijiorik gabe.
Guk geuk egindako otoitzak
beldurretik salbatuko gaitu.

Pleiaderen zatiak gara,
edonon espazioa, nonanhi bizitza,
eta gertatzen den guztia
jaioz eta bukatuz
elurrez bustita.

“Nieve”

Nieve... Mil planetas volando
el aire cosido de galaxias
el cielo dentro de nosotros
calentando el azul
y todos desnudos
en el centro del mundo
sin religión ni filosofía.
Una oración hecha por nosotros mismos
nos salvará del miedo.

Somos fragmentos de las pléyades,
en todas partes el espacio, en todo lugar la vida,
y todo lo que sucede
naciendo y terminando
empapado de nieve.

ALFONTSO ARANBURU